



ESNATU NAIZ

“ESNATU NAIZ” GIDOIAREN LEHEN BERTSIOA



KMK Elkarriketak
Diálogos **KMK**



ANDONI MUTILOA

Andoni Mutiloa (Hernani, 1976ko abuztuaren 17a) kazetaria eta sortzailea da. Irratian lan egin du batez ere, Gaztean eta Euskadi Irratian. Azken urteetan antzerkigintzan eta dantzan buru-belarri sartu da eta lan horren emaitza da Esnatu Naiz kabareta.

Ibilbidea:

Umea zela, Andonik argi zuen heldua izaterakoan aktore eta abeslari izan nahi zuela. Lehen urratsak dantzan eman zituen, Juanito Sanchizen eskolan. Nerabezaroan, berriz, Donostiako Eskola dantza taldean sartu zen eta ia 15 urte pasa zituen bertan.



Kazetaritza ikasi ondoren (Leioa, EHU), ETBko hainbat saiotan lan egin zuen erredaktore moduan. 2001etik 2007ra Gaztea irratiko esataria izan zen. Garai berean, magisteritza ikasi zuen eta Gazteko lana utzi ostean, ikasturte bat eman zuen Boiseko (Idaho, AEBak) Ikastolan euskara irakasten. Euskal Herrira itzultzerakoan Euskadi Irratian lanean hasi zen eta Amarauna, Goizeko Izarra eta Kantu Kontari irratsaioretako erredaktorea eta aurkezlea izan zen 8 urtez.



Bien bitartean, bere denbora librean antzerkiari eta dantzari denbora gehiago eskaintzen hasi zen: dantza garaikidea eta kontakt inprobisazioko klaseak eta ikastaroak, Artedramak Aulestin antolatzen duen Antzerki Laborategia, Musikomeria...



2017an eszedentzia hartu zuen Euskadi Irratian, eta orduz geroztik sortzen dabil. Donostiako Poltsiko Antzerkiko deialdian finalista izan ostean, Esnatu Naiz izeneko kabareta estreainatu zuen 2020ko urtarrilean eta azken aldiari emanaldiak eskaintzen dabil herriz-herriz. Horrez gain, antzerkia, dantza, musika, performancea eta ikus-entzunezkoak lantzen dituen Elur Etxea sortu du. 2020ko udan, Eñaut Gaztañagarekin (Grises taldea) batera idatzitako lehen kantua argitaratu zuen: [Maitasunez Blai](#).

ESNATU NAIZ. GIDOIAREN LEHEN BERTSIOA

ESNATU NAIZ
kabareta

ANDONI MUTILOA

LEHEN ESZENA

Teloia zabaldu da. Argi gutxi. Musika iradokitzailea. (Nina Simoneren Feeling Good). Eszenatokiaren atzeko aldean pantaila bat. Pertsona baten irudia ikus dezakegu, dantzan, modu sensualean. Streptease bat egiten ari da. Ez dugu bere aurpegia argi ikusten, baina ile luzea du. Abestiaren amaieran erdi biluzik dago. Orduan pantaila atzetik atera, eszenatokiaren aurreko aldera etorri eta IEUPPP!!! bat botako du ozen. Peluka luzea oraindik jarrita izan arren, bizarrak ez du zalantzarako tarterik eskaintzen: gizonezkoa da. Euskaldun peto-petoa. Gipuzkeraz hitz egiten du.

Kaixo!!!! Ongietorri!!! Ta eskerrik asko Londreseraino etortzeagatik nere showa ikustera! Asko pozten naiz. Gañea gaurko saioa euskara hutsean egingo deu. Londresen, bai! Euskal Herrian eongo bagiña bezela. Ikearriya!

Tira, baña lenik eta behin aurkezpena behar bezela inberkodeu, ezta? Gabon denei! Good evening ladies and gentlemen! Peio naiz. Peio Etxeberria. Ta ze itteu baserriko euskaldun peto-peto batek Londresen, holako taberna-zulo baten lanen? Egiya esan, duela 5 urte nei esan izan bazenidate, enuke sinistuko. Zeharo jota zeundetela pentsauko nuke. Baña ikustezue, bizitzak buelta ugari emateittu, ta batzutan ezinezkoak diruditen lekuetaraino ekartzen gattu. Beida! (*Begirada publikora. Eta berriz gorputzera. Eta publikora. Ezpainenetan irribarrea*).

Kasu batzutan bizitza xelege askua izan daiteke, bai hoixe!!!

Ta ordun zer gertatu zan duela ia 5 urte? Nolatan erabaki nun Euskal Herria utzi ta Londresera bizitzera etortzea? Ta zer gertatu da ordutik hona? Berehala ezagutuko dezue nere ibilbidea, hoixe kontauko dizuedalako show hontan. Beraz, exeri lasai, hartu arnasa sakon, ta presta zaitezte abentura harrigarri batean murgiltzeko. Bagoaz. Let's go!!!

BIGAREN ESZENA

Nik baserriko bizimodu arrunta izan nun urte askotan. 4 anai-arreba gea. Ni, txikina. Gure atta, berriz, ni txikiya nintzala hiltzan, da gure amak lana besteik ez du in bizi osuan. Etzun beste erremediok izan gaixuak, ta hala jarraitzeu oaindik ere. Eskerrak sasoi ederra dula emakumeak. Genio biziya du, da nik ustet horrek eman diola bizitzan aurrera itteko indarra. Beti

lanan da beti aurrera, gure Maria. Ta anai-arrebok, ze inber genun? Lana ta lana guk ere. Baserrin beti dao zeregiña, ta hoi ederki jakingou zuetako batek baino geyok, ezta? Baratzarekin soilik nahikua ta sobran izango nuke nik, baina beste mila zeregin nittun eunero: behiak jetzi, animaliei jaten eman, ikuilua garbitu, belarrak moztu, geo hoiek bildu ta ganbarara eaman, azokara jun. Beida, azoka, hoixe izaten zan nere zeregirik gogokoena, han behintzat jendiarekin solasen aitzeko aukera izaten bainun. - "Jaxinta, zemuz gea? Aspaldi etzintudala ikusten! Ta Ramon, osatu altzea jada? Oindik errenka ikusten zattut! Ei! Ayo Joxe Mari! Asteburun eongo gattuk!!!"

Azokan bai gustura. Baserrin, aldiz, ze esangoizuet... lana gogotik inberda. Bestela, jai dezu, ta Mariarekin are geyo, gure amak etzaitulako lasai utziko: "Peio! Arraultzak bildu al dituzu? Ta oindik beheko soroko belarrak moztu gabe? Oin ere pasa intzaizu? Peio! Esnatuuuu!!!"

Zenbat aldiz esan ote dit amak esaldi hori bizi osun? Kontua galduta dakat! Egiya esan, arrazoirik etzitziaion falta gure Mariari. Bera emakume gogorra da, beste pasta batekua. Nik eztakit zeatik ote dan, baina gure gurasoen belaunaldiko gehienak halakoxeak dira: sasoi onekoak, langileak eta genio bizikoak! Ta guk berriz, ba...beste kontu batzuk izan ditugu burun, beste zaletasun batzuk, ta baita beste amets batzuk ere.

Nik, adibidez, dantza ittea betidanik izan det gustuko. Ikastolan ikasle exkaxa nintzan. Beti ne mundun sartuta ala aldamenekoekin hizketan. Hor ere andereñoak sarritan, "Peio! Zertan ai zea? Esnatu! " ta holakuk botatzen zizkidan. Baina tarteka euskal dantzako klaseak izaten genittun, ta hor bai, earki moldatzen nintzan.

Fandango baten musika entzungo da. Eskuak gerrian jarri, oin puntetara igo eta "ieuppp" bat botatzearekin batera, urrats pare bat dantzatuko ditu.

Ba holaxe hasi nintzan dantzan. Ta handik gutxira, eskolako lagun batek, Iñigok esantzian herriko dantza talden ederki pasatzen zutela, ta juteko euren klaseetara, ta holaxe sartu nintzan buru-belarri euskal dantzaren mundun.

Urte mordoxka bat eman nitun gure herriko dantza talden. Bi entsegu asten. Herriko jaietan, berriz, beti izaten genun emanaldia. Ta tarten bidaiaren bat ala beste ere egin genun atzerrira. Duela 5 urte, ordea, AEBetara, Idahora, Boisera joateko gonbidapena egin ziguten dantza talde osuari. Ni juteko desiatzen,

noski, ordurarte Euskal Herritik kanpo gutxitan atera nintzalako. Gehienez jota Saloura, Aste Santun, launekin ta egun gutxitarako. Baina orduko hartan amari galdetu, ta ... "Bai zea! Udan bi astetarako nola jungo zea Idahora? Etxen lan handia deu. Baratzeko lanak nork egingo ditu, bestela? Ta aurten gañea, Nekane ezta eongo, fabrikan hasi baita lanen. Beraz beste baten izanberkou". Beste baten? Bai, noski, Boisera, Idahora joateko aukera urtero izango bagenu bezela. Gainera Jaialdira. Baina batez. Dantza taldeko gehienak hara juntzian, poz-pozik, ta ni, aldiz, baserrin gelditu nintzan, lanen.

Ta Boiseko bidai horren bueltan izan zan, bai. Egun baten, Iñigok bideo bat erakutsi zigun dantza taldeko launei.

Beyonceren Single Ladies abestiaren zati bat kantatzen hasiko da Peio. Hemendik aurrera bi pertsonaiak antzeztuko ditu, orduko elkarrizketa gogoratuz.

IÑIGO: Eiii! Ikusi al dezue emakume puxka hau? Nondik atea ote da? Boisen oso ezaguna da. Billonze izena du.

PEIO: Nola?

IÑIGO: Billonze. Ta dantzan parekoik eztu. Bida, bida.

Ta orduan, bideoa ikusteakuan, ne bizitzako errebelaziorik handiena izan nun!

Begiak zabal-zabal. "Efektu zerutiarra" enzungo da.

IÑIGO: Peio!!! Muttu geatu zea! Ze, maitemindu in altzea kolpe baten?

Peiok mutu jarraitzen du. Begiak zabal-zabal. Efektu zerutiarra berriz ere

IÑIGO: Ei, Peio, zer dezu? Ondo altzaude? Esan zeozer!

PEIO: Billonze?

IÑIGO: Bai, Billonze. Ikearri ezauna da Ameriketan.

PEIO: Ba nik Billonze izan nahi det (*begiak zabal-zabal*).

IÑIGO: Zer?

PEIO: Billonze izan nahi detela! Oain arte ez tet inoiz jakin zeintzan ne bidea, ta ze in nahi nun bizitzan. Baina oain bai, Iñigo, argia ikusiet. Aurrerantzean Billonze izango naiz!

Ta hoixe izantzan nere Abenturaren abiapuntua!

Egiari zor, ordutik bide luzea indet. Baina zailena, zalantzaik gabe, hastea, lehen urratsak ematea izantzan. Izan ere, segittun konturau nintzan Beyonce izateko baseritik ta Euskal Herritik kanpora atera bernula. Ta hoixe izantzan gorrena, erabakia hartzea. Ta horren berri etxen ematea. Ikearri urduri jarri nintzan ta ama berehala kontuatu zan zeozer banula burun.

AMA: Peio! Zer dezu? Jakin al dakiteke zer dabilkizun buru hortan?

Dios! Ezustean arrapatu nindun amak. baina bi aldiz pentsau gabe, barruak askatu, ta hizketan hasi nintzan:

PEIO: Ama. Harrigarria irudituko zaizu, eta erokeria galanta, seguru, baina argia ikusiet: Etorkizunean Artista izango naiz, ta horretarako etxetik alde gitea eta Euskal Herritik kanpo bizitzera joatea erabaki det (*azken esaldi hau azkar esango du, begiak itxita eta amaren erreakzioaren beldurrez*).

AMA: Hoi altzan guztia? Eskerrak! Beldurtzen hasia nintzan. Beida, Peio, jaio zinen egunetik jakin det zu ezberdina ta berezia zeala. Ta badakit baserriko bizimodua eztaola zuretzako egina. Beraz, artista izan nahi bazu, aurrera, segi zure bidean. Hoi bai, gogoan izan baserriko atea beti eongo dala zabalik zuretzako.

Ta aman hitz hoiek ez ditut sekulan ahaztu.

Beraz, maleta egin, etxekoak, baserria eta lagunak agurtu, eta Londresera etorri nintzan duela 5 urte.

3. ESZENA

Hitz egiten duen bitartean arropa aldatzen hasiko da. Galtza motzak, kamixeta eta alpargata txuriak zinta gorriekin

Lehen egunak Oxford streeten dagon aterpetxe baten eman nitun, ta orduan kontuatu nintzan Londresen inglesak baino, mundu osoko herritarrak bizi diala. Hiriko txoko guzti-guztiak bixitatu nitun lehen egunetan. Begiak zabal-zabalik. Belarriak erne-erne.

Ta kaletik bueltaka nenbilen lehen egun hoietako baten, autobuseko geltoki batean ikusi nun iragarki batek nere arreta bereganatu zun. Argazkian, gazte batzuk dantzan agertzen zian, ta hitz larritan, berriz, AUDITION hitza. Egiya esan, Londresera etorri nintzenen ingeles gutxi nekin, baina audition zertzan berehala ulertu nun. Audizioa. Dantza. The School. Tuesday. 9 AM. Eta informazio horrekin nahikoa izan nun.

Astearte goizean iragarkian idatzita zeon helbidera joan nintzan puntual-puntual, gutxitan ez bezela. 9 o'clock. Baina o'clock, o'clock. Ta eskolako atea zabaltzerakuan zer ikusiko? Ene bada! Han gutxinez ehun pertsona baino geyo eongo zian. Denak gazte-gazteak. Hoi gorputzak. Ta hoi hankak. Batzuk beroketak itten. Plie, relevé, ta hanka zeruraino igoz. Beste batzuk, berriz, sekulako saltoak ematen. Argi ikusi nun une hartan: Peio, hemen jai dezu! Maila goreneko dantzari gazte hauen arten eskola hontan sartzea ezinezkoa izango da. Gehienek 20 urte inguru dituzte. Zu ume hoietako batzuen aita izan zintezke. Ta gañea, beida ze piura daramazun (*begirada gorputzera*). Nora zoaz? Ta ze hostiatarako etorri zea hona? Peio, esnatu! Alperrik zabilta!"

Ta une hartan nere izena ozen entzun nun: - "Peio Hetxe-Beuria. Your turn!"

Dios! Ne txanda dala!!! Ze hostia ittezu hemen, Peio? You are crazy! Ta gainea krixton kakaguria sartzen ai zait oaintxe! (*arnasa sakon hartuz*). Relax. Relax, Peio. Take it easy, my friend. Everything's gonna be alright. Everything's gonna be alright.

Areto nagusira sartzera koan galdera bakarria intziaten:

IRAKASLEA: Improvisation or choreography?

PEIO: (*Begiak zabal - zabalik irekiz*) Baina zeozer prestatu behar al nun? Impro, impro! Inprobisatzen artista naiz ni!

IRAKASLEA: Any music?

PEIO: Music? Music? Yes, yes, music, please!

Nik ez naraman ezer prestatuta. Ta erritmo biziko abesti bat jarri ziaten.

Erritmo elektronikoko abesti dantzagarri bat entzuten hasiko gara.

Une hortan ia biyotzekua eman zidan. Pentsa, kakaguria ere kolpetik juntzitzaidan. "Goodbye, my friend. Zureak egin du. Ayo. Agur. Ea bizirik ateatzen zean hemendik."

Ta ordun bururatu zitzaidan: Ayo. Agur. Agurra!

Musika gora. Eta Peio abestiaren gainean agurra dantzatzen hasiko da serio-serio.

Ta dantzan jarraitzen nun bitarten, tribunaleko 4 kideak, begiak zabal-zabalik. "What the fuck is he doing?" esan zuen ahopean gizon batek. Erdian exeita zegoen andreak, ordea, barre egintzun.

Musika gora berriz ere. Dantzan jarraituko du Peiok, orain bai, euskal dantza eta beste edozer mugimendu nahastuz. Inprobisatzen. Ero moduan. Xelebre.

- "What was that?" - galdetu zidan emakumeak bukatzerakuan. "Basque folklore", erantzun nion nik. - "Are you basque?" - "Yes, I am basque, and I am very proud". - "Interesting. Very interesting!" esan zuen andreak. Gustau intzitziaion, antza, edo grazia handia intzion. Kontua da arratsalde hortan bertan audizioko aukeratuen zerrenda ezagutzera eman zutela. 10 lagun behar zituzten. Alferrik nenbilela banekin, baina, bazpare zerrenda ikustera jun nintzan.

Interes, espektazio eta beldur aurpegiarekin irakurtzen hasiko da Peio.

Audition results in alphabetical order:

Adams, Sabrina

Bequers, Bert

Francis, Connie

Putza! Enaute aukeratu! Tira, argi zeon, ezta?

Hurrengo izenak azkar eta interes handirik gabe irakurtzen hasiko da

Green, Mike. Hetxeberrria, Peio. Baina Etxeberrria ez da hatxekin idazten. Konfunditu intzeate. Ey? Ezta posible. Zerrendan nao? Zerrendan nao. Benetan? Zerrendan nao! I'm in! I'm in!!! I can't believe it!!! Dantzari - artista hauek burutik jota daude? Nolatan aukeratu naute? Nola da posible? (*barrez, negarrez, flipatuta*).

Une hartatik 5 urte pasa dia, ta oindik eztet ulertzen nolatan aukeratu ninduten audizio hartan. Baina gaur eszenatoki honen gainean banao, ero hoiek emandako aukeragatik eta eskola hartan ikasitakoagatik da, horretan eztaukat zalantzarik.

4. ESZENA

The School. Eskola. Hortxe eman nitun lehendabiziko 3 urtek Londresen. Ia egun osua pasatzen nun bertan: klaseetan ezpazan, entsegu gelan, ikasitako koreografiak errepasatzen, atsedean gelan lo kuluxka bat iten, ala jangelan, nere klasekideekin hizketan, te bat hartzen genun bitartean. Bai, Londresen tea edaten baiteu uneoro. Kafea, gutxi. Ta Kolakao zopekin, are gutxiyo.

Lehen urte hoitan jende mordua ezagutu nun. Dantzari gazteak, gehienak, ne modura atzerritik zetozenak. Lehen klasekide batzuen izenak aipatuitut: Sabrina, Bert, Connie... eta eurekin batera Stella, Edward, Gilberto, Elske, Chus eta Tommy ere bazeuden. Euren laguntza eta babesik gabe enukeen luze iraungo Londresen, hiriko erritmoa basatia baita. Dena oso "polite", oso formala, itxura gauza guztien gaineratik zaintzeutelako ingelesek. Baina deskuidatuz geo, ZUP!!!! Hiriak irentsi iten zaitu!

Eskolan hasi eta berehala apartamentu bat alokatu genun klasekide batzuk. Hortxe zeuden Edward, Brighton hiritik zetorren mutil isil eta lasaia; Chus, Granadako neskarik alai eta maitagarriena; eta Tommy. Tommy, edo Super Tommy, ala deitzen baikenion. Ta zeatik Super Tommy? Ba handia zelako zentzu guztitan. Ia 2 metroko mutil puxka. Antzematen zan, bai, Europako iparraldetik zetorrela. Melena rubio luze-luzea. Tipo gihartsua. Sendoa. Ta halere, ikusi inbertzenuten dantzan. Bera baino arinagorik eztet ezautu. Bizibiziya zan Tommy. Ta hiztuna? Dedio! Ni enaiz ixiltzen, baina bera... gainea eunero ixtorio xelebren batekin zetorren, ta noski, denok galdetzen genion bere azken abenturaren berri. Izan ere juergazale amorratua zan Tommy, ta Londreseko taberna, garito, klub eta antro guztik ezautzen zittun. Tira, hobe esanda, lokal guztitan ezautzen zuten, hara iritsi orduko, "Tommy, you are back!" esan ta berarekin batera gindoazen guztiok dohainik sartzen baikiran barrura. Ta holaxe ikusi ta ikasi nun nolakoa dan Londreseko gau-giroa edo THE NIGHT LIFE!!!

Mahoizko galtzak jantziko ditu Peiok

Eta nolakoa da Londreseko night life edo gau giroa? Ea ba... pentsa une batez. Zer da burura datorkizuen gauzarik xelebreena? Arraroena? Estranbotikoena? Ba biderkatu hori 10 aldiz, eta halere motz gerauko zeate. Dios! Nik holakoik enun ezautzen hona etorri arte!

Euskal Herrian ederki dakigu zer dan festa, bai, baina hemen mundu berri bat deskubritu nun nik. Oaindak gogoan det The Cave edo Kobazuloa izeneko klubera sartu nintzan lehen aldia. Pasillo luze

ilun bat. Etzan ezer ikusten ta entzuten bertan. Ta pasilloaren bukaerara iristerakuan, atea zabaldu ta ... beste orbita baten sartu ginan.

Musika elektronikoa

Kolore, arraza ta adin guztitako jendea. Itxura ere ezin anitzagoa: Afro ilea, takoi erraldoiak, kanpaidun galtzak, shortak, gorbatarik dotoreenak, gasazko soinekoak, ta nik, mahoizko galtzak! Tira, baina gauza batean bat egiten genun guztiok: dantzan, baina benetan dantzan, biharamunik egongo ez balitz bezela ai ginan denok. Batzuk saltoka, beste batzuk lurrian, bueltaka, txiribueltak ematen; gutxi batzuk, geldi-geldi mugitzen, besarkatuta, pasioz gainezka. Oindik lehen une hortaz goatzen naizen aldiro, gorputz osoko ilek puntan jartzen zaizkit, etxera iritsi nintzala sentitu bainun. Nere benetako etxera.

Trantze horretatik atera nintzaneako, Tommy plataforma gainean dantzan zeola ikusi nun. "Peio, come here!" oihukatu, besoa luzatu, eta salto batean hantxe nintzan ni ere. On top of the world!

Gau hartan inoiz ez bezela egin nun dantza. Dena eman nun! Gehiago ezin nula uste nunen, astindu berri bat sentitzen nun barrun, eta gorputz osora zabaltzen zan deskarga hori. Hustuta amaitu nun, leher egina, ta aldi berean pozez gainezka. Ta eztizuet aipatu oaindik, baina Londresen dantzan ez ezik, edan ere gogotik egiten da. Dedio! Ingelesak zurrutero hutsak dia!!! Ta noski, hortxe pasa genun gau osua pintak, txupitoak ta nik eztakit ze demontre edaten. Eskerrak dantzan aitu ginala denbora osuan, bestela, eztakit nola bukatuko nun gau hartan, erietxean, edo batek daki. Kontua da astearte gaua zala, ta hurrengo egunean klasea genun, jakina, ta eskerrak Chusek esnatu nindula. Hortxe jun ginan biok, ahal genun modun klasera, berandu ta sekulako biharamunakin. Dantza klasikoko irakaslea, Miss Hingis berehala konturatu zan. "Long night, eh, Peio?" Ta gainontzeko klasekideak barrez lehertzen, noski. Xelebreena zera da, tartean Tommy zegoela, fresko-fresko, aurpegi bikainarekin, ta betiko sasoiarekin dantzan. Kabroia. Ai, gure Super Tommy! Horrelakoik eztet ezautu gaur arte!!!

5. ESZENA

Ikusteituzue zapata gorri hauek? Tommyk oparitu zizkidan: "When I saw them I thought about you" - esan zidan. Alegia, ikusi zitunen nigan pentsatu zula. - "Why?" Zeatik? Nik eztitut sekulan takoiak jantzi".- "Try them", bota zidan. Janzteko? "Baina etzaizkit kabituko, Tommy, hanka handia det nik. 45 terdi. Forty five and a

half!" - "Try them" - esan zidan berriz ere. Ta zapatak jantzi bezain pronto, Mari Errauskin nintzala sentitu nun!

Bals moduko dantza labur bat dantzatuko du Peiok, begiak itxita, zapata gorriak eskuetan dituela.

Kolpean maitemindu nintzan zapata hauekin. Hoi bai, uste baino gehiago kostau zitzaidan takoietara ohitzea ta eurekin ibiltzen ikastea.

Zapatak jantziko ditu Peiok

"High heels are like a wild animal. You need to control them". Hoixe esan zidan Tommyk zapatak jantzi nitunen. Ta arrazoirik etzitzai on falta. Hasieran, zea pentsatu nun: "oin puntetan dantzan egitera ohituta nao. Bota fandangua, ta ondoren arin-arina. Ez da hain zaila izango, ezta?"

Musika: The Ting Tings: Shut up and let me go. Peio oinez hasiko da, pasarelan egongo balitz bezala. Hasieran ezinezkoa zaio. Super zaila.

"Peio, you need to control them!" - Animalia basati baten modukoak dira takoidun zapatak, errepikatu zidan Tommyk. "You have to do it slow" - . Ta bai, hortxe hasi nintzan, poliki-poliki, takoi en gainean ibiltzen ikasten.

Hasieran poliki, ondoren gero eta azkarrago, eta azkenean arin-arin baten zati bat takoi ekin dantzatuko du Peiok.

Azkenean bai! Lortu nun takoi hauek mendean hartzea! Hoi bai, eztaukat zalantzaik: takoiak gizonezko batek asmau zitun, ta apustu ingo nuke emakumeak kontrolpean izateko asmoz intzula. Ta nik takoi etan ibiltzen ta dantza itten ikasi arren, aitortuko dizuet: tortura galanta dia netzako, ta behin baño gehiagotan, eurek kendu ta surtara botatzeko gogua izan det. Baina takoi en sortzaileak seguruaski jakingo etzuna zera zan, kontrako efektua ere sor dezaketela, eurek kontrolatzea lortuz gero, sekulako indarra ematen dizutelako. Hemen nao ni, ondo errotuta, lehen baino gorago, ta takoi hauen gainean edozer egiteko gai sentitzen naiz. Indartsu. Kemenez gainezka. Bota erronka bat, ta zalantzaik gabe gaitutuko det.

Portzierto, takoiak eta mahoizko galtzak batera, dotore, ezta? Konjunto politta!

Baina itzul gaiteen The School edo Eskolara, urte horietan mordoa ikasi nuelako.

Takoiak kenduko ditu Peiok

6. ESZENA

Dantzako klase asko genitun. Miss Hingisekin dantza klasikoa lantzen genun batez ere. Balleta alegia. Demontre! Hor gorriak ikusten nittun, baina serio ahalegintzen nintzan, hori irakasleak bazekien, ta horregatik etzan gogorregia nekin. Eskerrak! Horrez gain, dantza garaikideko klaseetaz Mr. Douglas arduratzen zan. Dantza garaikidea edo kontemporanea. "Ta hoi zer da?" galdetu izan didate sarritan. Ta nola azaldu? Ikusi al dezue noizbait dantzari bat gauza arraroak egiten, besoak eta hankak modu librean mugitzen eta zer egiten duen ulertzen eztezula?

Azalpena ematen duen bitartean Peiok besoak eta hankak mugituko ditu. Begirada galduta. Flipatu aurpegia.

Ba hoixe da dantza garaikidea!

Ta nik ere flipatu in nun, baina pozez! Batzutan koreografiak ikasten genittun. Ta hasieran oso zaila izantzan, urratsak kopiatzea asko kostatzen zitzaidalako. Baina pixkanaka ohitzen ta segurtasuna hartzen joan nintzan. Horrekin batera, inprobisazioak lantzen hasi ginan, ta hor bai, "like a fish in the water". Arrainak uretan bezela, alegia. Inprobisazioko klaseetan gai nintzan nahi nuna itteko, nere barruak askatzeko, gorputzai aginte makila eman ta behar zun modun mugitzeko. Ez pentsatzeko. Ta Unibertso horretan inoiz ez bezela gozatzen ikasi nun. Txoriak bezela. Aske. Libre.

Dantza zati laburra

Beraz, dantza garaikidea. Mr. Douglas. Horrez gain, tarteka beste irakasle gonbidatu batzuk izaten genittun. Ta hola jakin nun zer dan Kontakt Inprobisazioa.

Kontaktean zure buruarekin egiten dezu dantza lehendabizi; ondoren, inguruko espazioarekin; eta azkenik beste pertsonekin. Ta bertan sortzen dana harrigarria da. Ezinezkoa zait hitzez azaltzea.

Eun baten kontakteko irakasle gonbidatuak, Gabriel Forestieri izeneko gizon amerikar batek ez ohiko proposamena intzigun. "We are going to the park!". Gu harrituta, noski, baina zapatak ta berokia jantzi ta eskola ondoko parkera jaitsi ginan. Ta han belarretan aritu ginan dantzan, zuhaitzekin batera, hostoekin jolasten, sentitzen genunaren arabera mugituz. Gure barruak barruak pixkat hobeto ezautuz. Hustuz. Arnas berriarekin betetzen. Naturarekin bat egiten.

Kubo batean dagoen hosto poltsa gainetik bota eta kontakt estiloko dantza txikia egingo du Peiok. Lurrean txilipurdika. Hostoak ukituz. Arnasa sakon hartuz.

Ta eun hortan negar egin nun aspaldiko partez. Hunkituta, nerekin, naturarekin ta Unibertsoarekin konektuta sentitu nintzalako. Ta horrelakoik enun sekulan bizi izan ordurarte.

Dedio! Hau kuxidadea. Nere mundun sartu ta beida nola utzi deten dena. Peio, Esnatu! Izan ere, kontaktean hasi ta emozionatu itten naiz. Ta gauza bat esangoizuet. Kontakt inprobisazioa praktikatzen hasi nintzanetik Naturarekin dudan harremana goitik behera aldatu da. Txorakeria galanta irudituko zaizue, agian, edo sekulako pitzadura daukadala burun, baina benetan esateizuet: Naturaren parte naizela sentitzet oain. Ta lehen etzan hala. Ia bizi osua eman det baserrian, Naturaz inguruta, baina harremana ezberdina zan. Enun inoiz dantzatu zuhaitzekin, ezta haizearekin ere. Nere buruari enion aukeraik eman lurra ta belarra nolakoak diran sentitzeko. Ta oain ikearri maite det hoi eitea. Behar det. Bai. Londresen bertan, parke batera juten naizen aldiro, une txiki bat hartzet nekin konektatzeko, ta zuhaitzen bat eonez geo, gerturatu ta.... "elkarrekin dantza ingo deu?" galdetzen diot. Ta hor hasten gea balsean, edo agarrauan. On handia iteit. Sekulako pakea sentitzet ondoren. Hasieran kostatzen itten zitzaidan. Lotsa! Zer pentsatuko du inguruan dabilen jendeak? Ta geo nere buruaz barre itten nun. Hippy bat naiz! Arima hippya dun baserritar euskalduna. Ta Londreseño etorri behar izan det hortaz jabetzeko. Hau da hau marka!

Ordurako hostoak kubo barruan sartuta izango dituen arren, horietako bat aurpegi aurretik pasa eta barre egingo du Peiok

Ba bai: euskal-hippy bat naiz eta harro nago!

7. ESZENA

Kontakt inprobisazioa. Bizitza aldatu dit, bai. Baina gauza geyo ere ikasittut Eskolan. Butoh dantza, esate bateako. Ba al dakizue zer dan Butoh dantza?

Butoh. Butoh! Butoh! (*arte martzialak egiten arituko balitz bezala*). Bai. Japoniatik datorren dantza bat da. Askok pentsatzen dute dantza tradizionala dala. Aspaldikoa, alegia. Baina, bai zea! 20. hamarkadan sortu zuten, 2. Munduko Gerraren ostean. Ta nola azaldu zer dan hitz gutxitan? Gure itzalarekin dantza itea da. Gure barruan ezkutatuta degun alde horri lekua ematea. Inkonszientean ala subkonszientean ditugun pentsamendu ta emozio hoiek dantzaren bitartez adieraztea. Askotan iluna izaten da Butoh dantza, batez ere ikuslearentzat. (*azkazalek arbelean egiten duten soinu estridentea imitatu*). Iiiiiiin. Dantzariarentzat, ordea, kontrakoa izan daiteke: dantza sakona, askatzailea ta terapeutikoa.

Butoh dantza saio txiki bat egingo du Peiok. Errespetuz eta bere oinarria mantenduz, baina bere alderik xelebreena azaleratuz, aldi berean.

Aitortuko det. Butoh dantza ikusi nun lehen aldian aho bete hortz gelditu nintzan. Begiak zabal-zabalik. Ia ia Beyonceren bideoklipa ikusi nunian bezela. "Ze hostia da hau? Tripako minez al dao dantzaria?", pentsatu nun lehendabizi. Baina berehala konturatu nintzan hori baino askoz sakonagoa zala kontua. Jonathan Martineau, butoh dantzako irakaslea da. Gure eskolara etorri zan egun batzuetan workshop edo ikastaro trinko bat ematera. Ta ordun ulertu nun zeatik dan hain indartsua, hain potentea ta hain sakona butoh dantza. Zure beldurrak aurrez-aurre jartzen dizkizu. Zure mamuak ta deabruak. Ta ausarta ta kementsua bazea, mamu hoiek besarkatzeko gai izan zaitezke dantza horren bitartez. Ezinezkoa izan zitzaidan lehen aldi hartan. Nahi ta ezin ibili nintzan. Enun lortu nere izaeraren alde ezkutu horrekin konektatzea. Baina gutxinez ulertu ta sentitu nun txiki-txikitatik beldur eta emozio mordoa izoztuta izan ditudala barruan. Zeatik? Eztakit. Bizitzan aurrera egiteko, pentsatset. Minik ez izateko. Ez sufritzeko. Blokeatutako emozio guzti hoiek, ordea, hemen barrun egon dia gordeta urte guzti hauetan, ta... hortxe nabil, pixkanaka askatzen, dakidan moduan. Ahal dudana itten!

***Irribarre egingo du Peiok. Azkazalen igurtzia
arbelean berriz ere. Eta hots estridentea***

Iiiiiinnnnng. Butoh. Butoh!

8. ESZENA

Baina dantzaz gain, oso bestelako klaseak ere bagenitun The Schoolen. Kantatzen ikasi nun, adibidez. Ta hoi sekulako aurkikuntza izantzan! Izan ere, dantzaren kasuan, tira, modu batera ala bestera, baina zeozer dantzatzen banekin: euskal dantzak. Ta parrandetan, edozer gauza ere bai. Salsa, bachata, reggaetón, perreo-perreo... Agarraoan gutxi. Edo nahi baino gutxiyo. Hor ere ahal genuna itten! Baina kantuan? Batez. Gure etxen, egiya esan, ezteu kantatzeko ohitura handirik izan. Irratia, bai, piztuta izaten genun sukalden egun osuan. Ta musika ere asko entzuten genun, batez ere Nekanek. Disko pila erosten zuen berak. Ni, berriz, beanduago hasi nintzan, kotxeko karneta ateratzeakuan. Gogoan det 3 kasete nitula furgoneta zaharrean, ta hortxe ibiltzen zian bueltaka, denbora guztian: Gozategiren bat, Alaitz eta Mainerren lehendabizikoa, ta Spice Girlsena. " I'll tell you what i want, what I really really want, I wanna, I wanna, I wanna" Dedio! Zenbat aldiz entzungo ote nun abesti hori? ustet azkenen hainbeste erabiltzearen ondorioz zinta puskatu intzala. Baina abestu, gutxi. Ta xelebreena da kantatzea mordua gustatu izan zaidala txikitatik.

Gero denborak aurrera egintzun. Kaseteen garaia amaitu intzan. Ta noizean behin diskoren bat ala beste erosten hasi nintzan. CDak. Ta euskal artisten artean talde kuttun bat izan det urte guzti hauetan. Kerobia. Bazun zerbait berezia banda horrek. Zer? eztakit hitzez azaltzen. Baina kantuek barrua astintzen zidaten ta melodiak ere buruan bueltaka gelditzen zitzaizkidan sarritan. Gogoan det Londresera bizitzera etortzeko erabakia hartu aurretik, egun hoietan asko entzun nula Kerobiaren Rose Escargot. Are geyo, disko horretako kantu batek eman zidan behar nuen indarra eta bultzada erabaki garrantzitsu hori hartzeko.

***Kerobiaren Esnatu Naiz abestiaren estribiloa
kantatuko du Peiok a capella***

Ta momentu hoietan ez ezik, hemen Londresen laguntza behar dudan aldiro, indar handia emateit abesti horrek. Batez ere triste naonian, edota hona etorri izanaz damutu izan naizenetan. Bai, hori ere gertatu izantzaidalako noizean behin. Bajualdia. "Ze hostia ittet hiri gris, euritsu eta kaotiko honetan? Ez al nintzateke askoz ere lasaiago biziko Baserrian? Ala Euskal Herriko beste txokoren batean? Baina mota horretako zalantzak eta ideiak izateteitudan bakoitzean, Kerobiaren kantu hori abestu ta baretu iten naiz.

Tira, baina kantuko klaseei buruz ai nintzan hizketan, ezta? Ba hortxe iritsi nintzan lehen egunean Miss White andereñoaren klasera. Miss White du izena, baina azala beltz beltza du berak. Hoi emakume puxka! Metro ta laurogei, ta bere ile afroarekin, ia 2 metro. Super Tommyren altueraren antzekua! Ahotsa, berriz, sakon-sakona. Begirada zorrotza. Tontakeria gutxi Miss Whitekin. Hoi bai, berak barre eginez geo, aldameneko klasean ere entzuten zuten. Ta gainea, gainontzeko guztiok berarekin barrez lehertzen bukatzen genun.

Gogoan det oraindik berarekin izan genun lehen klasea. "Choose one song. And sing it. A capella. Now". Edozein kantu izan zitekeen, edozein hizkuntzatan. Demontre! Kantu bat? Oraintxe? Ta zer kantatukot? Etzait ezer bururatzen! (*Spice Girlsen zatia berriz ere*) I tell you what you want, what you really really want. Bai zea! Nola kantatukot hoi? aze lotsa!"

MISS WHITE: Etxeberria, Peio. Your Turn!

PEIO: Now?

MISS WHITE: Yes, now. Start, please!

PEIO: Ai ama!

Ta orduan ere Kerobiaren kantuak salbatu nindun.

Esnatu Naiz, ieee ieeee...

MISS WHITE: And now you're gonna improvise with the melody

PEIO: What? Inprobisatu? ta hoi nola ingot?

MISS WHITE: You need to feel the music and to be free!

PEIO: ai ene! dantzan zeozer inprobisatzen badakit, baina kantuan?

MISS WHITE: Try it. It's a game.

PEIO: Jolasa?

Ta hortxe hasi nintzan kantuarekin jolasten.

ESNATU NAAAAAIZ (melodiarekin jolastuz zati bat abestuko du Peiok)

Ta eztakit nola bizi izantzuten klaseko beste kideek ariketa hori, baina netzako ahaztezina izantzan. Hustu egin nintzan. Ta ondoren bete. Konfidantza mordua emantzidan, ta orduz geroztik egunero kantatzen det. Dutxan, metroan noanean, dantzan ari naizenen, ta ametsetan ere bai, sarritan.

9. ESZENA

Geo, beste egun baten kontrako ariketa proposatu zigun Miss Whitek: "kantu baten hitzekin jolasean arituko gara, hauek goitik behera aldatuz. Hartu, adibidez, Whitney Houstonen I will Always Love You. Eta ea zer sortzen duzuen berarekin. Nahi duzuen hizkuntzan."

Ufa... hau ere kontu berria zan netzako. Tira, egiari zor, gainontzeko klasekideak ere nahiko larri ibili zian, ahal zutena egiten. Chusek, nere pixukideak flamenko ukitua eman zion: (*Estribiloaren melodian oinarrituta*) "Ay que te quiero, mi via, mi amor... Te extraño una jartaaaaa, mi via, mi amor... Donde te has metio, cabróooooooooon!" nahiko xelebrea, Chusen bertsioa.

Ta ni, hortxe, nahi ta ezin. Dedio. Euskalduna izanda, geneetan daramagu bertsoan aitzearena, ezta? Baina, keba! Hortxe aitu nintzan Txirritan arimari laguntza eskatuz, baina alperrik. Trabatuta jarraitzen nun. "Txirrita, help me, please!" ai, noski, honek ingelesez etzun jakingo: "Txirrita, launduidazu, faborez!", ta hortxe piztu zitzaidan inspirazioa:

**Hendaiatik Baionara noa zureganaaaaa!!!!!!
(Esaldiaren hasierako And I horrekin jolastuz)**

Ta noski, ariketa horren ostean ni ya flipatzen hasi nintzan. "Peio, beida nun zeunden duela urte terdi, baserrian, ta beida nuntzauden oan, Rock Star bat izateko bidean. (*Arropa aldatu azkar batean. Beroki kantoso bat jantzi*). Nere ametsetik gero eta gertuago nao. Billonze, adi, zure atzetik noalako, and I'm ready!

Beyonceren Crazy In Love kantuaren moldaketa laburra kantatuko du Peiok, Dena oso exageratua. Aurpegia xelebrea jarritz.

Ta aitortu ingot. Une batez pentsatu nun rock izan ospetsu bihurtzea posible izango zala. Baina ordun konturau nintzan artista ugari daola munduan, ta Londresen are geyo. Tabernetan lan egiten duten zerbitzarien erdik baino geyok aktore ala dantzari izan nahi dute, edo biak, ta abesten ere ederki dakite horietako askok. Ta noski, nik baino 20 urte gutxiago dituzte, ta altuagoak dia, ta gihartsuagoak, ta ile geyo dute, ta... hoixe, ospea ta fama lortzea oso zaila dala, ta are geyo euskalduna ta baserritarra bazea. "Pello, Esnatu. Eztezu inoiz lortuko burun dezuna. Ezta erreala! Billonze bakarra dao munduan, ta zu Peio zea. Peio Etxeberria. Hoixe da daona. Beraz, hobe amets txoro hoiek alde batera utzi ta gogotik ikasten eta lanen jarraitzea. Ta hola, zeinek daki, agian egunen baten zeozer lortuko zu.

A! Baina begira nun naon orain: eszenatoki baten gainean! Gauero jende ugari etortzen da gure showa ikustera. Ta garrantzitsuena: pozik bizi naiz horrela! Mota honetako lokal batean? Ba bai, pozik eta harro! Eta nola heldu nintzan hona? Lasai, ez izan presarik. Berehala kontatuko dizuet.

10. ESZENA

Londresera bizitzera etorri nintzanen diru pixka bat aurreztuta nun, baina hiri hau garestietan garestiena da. Urtebete pasa ondoren diru premia nabaitzen hasi nintzan, ta eun baten nere egoeraren berri eman nien pixukideei:

PEIO: I need money. Cash! Baina eztakit zer ein. Ta gañea, Eskolako klaseak eztitut galdu nahi, beraz, lana gaez edo asteburuetan in berko nuke.

Ta Tommyk, begietara zuzenean beidatu zidan, ta bi hitz bota zitun:

TOMMY: HAPPY END.

PEIO: Happy End? Ze esan nahizu, Tommy?

TOMMY: Happy End. The club. Do you know where is it?

Happy End? Ordurako taberna, diskoteka ta antro mordoa ezautzenun hirian, baina club horri buruz enun sekulan ezer entzun.

PEIO: No idea, Tommy!

TOMMY: You're gonna love it. And they're looking for dancers.

Dantzariak behar dituztela? Ni prest horretarako. Enaiz Nureyef eta ez det Pina Bauchen konpainian dantzatu, baina ni baino geyo saiatzen dianak, ez dituzu hain erraz aurkituko.

PEIO: OK. ta noiz jun gaitzke Happy Endera, Tommy?

TOMMY: Tonight

PEIO: Gaur gauen? Bai zea!

TOMMY: Tonight. Why not?

PEIO: Bale, ba guazen gaur gauen. Edward, bazatoz?

EDWARD: No, I need to study.

PEIO: Lasai. No problem, my friend. Chus, zu ba al zatoz?

CHUS: Ay...yo contigo al fin del mundo, ¡primo!

Primo deitzen zidan. ¡Qué salada! Baina egiya esan, lehengusua baino, arreba da netzako Chus.

PEIO: Super Tommy, Let's go!

Ta hola etorri nintzan lehen aldiz Soho auzoan daon klub hontara. Ezagutzen enun kale estu eta ilun baten bukaeran zeon lokala. Ataria ere, sartzetakoan ikusiko zenuten, iluna eta zaharra. Tommyren atzetik barrura sartu ginen Chus ta biok, eta ordurako Londresen denetarik ikusi nula uste nun, baina bai zea! Dekorazioa, elegante itxurakoa, baina zaharkituta hori ere. Eta eszenatokiko teloia, morea eta tertziopelozkoa. Lehen gau hartan bi gizon ilehori zeuden dantzan. Ordurako erdi biluzik biak, bata besteari arropa kentzen, modu sensualean.

Euren eszena imitatuko du Peiok, alkandora bat duen pertxa bat eskuetan hartzen duen bitartean

- Ooops! Ze erraz askatzen den alkandora hau!

- Ene bada! Ze handia den zure ... bihotza!

- Orain galtzak erantziko dizkizut, maitia..

Ta azkenean pega-pega bukatzen zuten bi mutilek. Originaletik gutxi zun euren saioak ta dantzan ere etzian trebeenak, baina aitortuko det: hipnotizauta gelditu nintzan eurei beida. Eztakit zeatik izango ote zan, baina nere arreta osoa bereganatu zuten bi mutil hoiek. Ta egun hartan Happy Enden jende askorik etzegoen arren, txalo zaparrada luzea eskeini genien ikusleek. Hoi bai, berehala erreazionatu nun:

PEIO: Tommy, baina nola hostia ingot lana club hontan? Hemen strepteaseak itten dituzte! Ta ni gehienez jota dantzaria naiz. Baina hemen ez dute dantza garaikiderik itten, ezta butohrik ere ez. Kontakt inprobisazioa agian bai, baina nik ustet ikusleek nahiago dutela full contact. Ta ni? Enaiz aproposena hortarako. Gainea, ikusizu, dantzariek gorputz ederrak dituzte, ta super sexyak dia, ta ni... ni Peio naiz!

TOMMY: The red shoes.

PEIO: What?

TOMMY The red shoes. That's what you need.

CHUS: ¡claro, primo! ¿Pero tú te has visto cuando te pones los taconazos rojos? ¡Te conviertes en una fiera! ¡En un leon! El rey de la selva. ¡Y ahí te los comes a todos!

PEIO: Chus, no me tomes el pelo, ¡que esto es un asunto muy serio!

CHUS: Primo, yo creo en ti. ¡Vas a estar divino de la muerte!

PEIO: De la muerte. Ointxe asmatuzu, prima!

TOMMY: Don't worry. I will help you.

Hoixe esantzidan Tommyk. Lana lortzen lagunduko zidala. Ta nola? Sexya izaten ikasteko klase extra batzuk emanaz. Hurrengo egunean hasi ginen.

11. ESZENA

**Musika iradokitzailea: Serge Gainsbourgen Je T'aime...
Moi Non Plus. Tommyren ahotsa offean entzungo da,
gainetik (Grabatuta). Ahots lodia.**

TOMMY: Rule number 1. Touch yourself. Very gently.

PEIO: Ukitzeko? Nola, horrela? (goxotasunik gabe. Baldar)

TOMMY: No. Very soft, Peio! And with lots of love

PEIO: Maitasun handikin (bere bularraldea ukitzen hasiko da). Horrela hobeto, ezta? Gustatzen zait, bai!

TOMMY: And you can close your eyes. You need to feel it!

PEIO: (begiak itxiz) Sentitu. Hortxe dao giltza, ezta? Sentitu, sentitu! (arnasa sakon hartzen hasiko da Peio. Begiak itxita eta bere gorputza ukitzen. Eszena xelebrea)

TOMMY: Very well, Peio! And rule number 2, you can make some noise and express your desire. Yeah! Oh Yeah!

PEIO: ah.Oh yeah.

TOMMY: More! Give me more!

PEIO: yeah! Oh yeah! (*gero eta ozenago, gero eta azkarrago igurtziz bere gorputza*)

TOMMY: Louder. Do it louder!

PEIO: Ozenago? Tommy, hola segitzen badet berehala bukatukot, ta geo ezingot jarraitu!

TOMMY: Ok, take it easy darling. And now you can open your eyes and touch yourself up and down.

PEIO: gorputzean gora eta behera?

TOMMY: Yes! Rule number 3. Up and down. Very gentle, very soft.

Hala egingo du Peiok. Makurtzen eta zutitzen hasiko da, ukitzen den bitartean. Nahiko baldar hasieran.

TOMMY: Softer, please. Remember: you need to feel it!

PEIO: Bai, bakit sentitu behar dudala, baina ezta hain errexa, e? Ta gañea takoi hauen gainean ...

Gero eta hobeto moldatzen hasiko da Peio

TOMMY: And now, rule number 4. The eyes. Look at me, Peio!

PEIO: zuri beidatzeko? Ta nuntzaude, Tommy?

TOMMY: in front of you. Sitting in the public. Look at me. And open your eyes.

PEIO: (*begiak zabal zabal irekiz, beldurra emateko moduko begiradarekin*). Horrela? Eztakit hau oso sexya ote den...

TOMMY: Look at me with desire! You need to seduce me. Do you understand?

PEIO: bai, ulertzet. Desioarekin beidatzeko zu seduzitzeko. (*eta orain bai, askoz hobeto egingo du Peiok*)

TOMMY: you got it! Now I'm yours, Peio!

PEIO: Lortu dut. Konkistatu zaitut! Sexya naiz eta harro nago! (*gero eta handiago, gero eta konfindantza gehiagorekin mugituz eta dantzatzuz. Ta hemendik aurrera burua galtzen hasiko da Peio*).

Ta bai, euskaldunak ere sexyak izan gaitezke! Ze uste zenuten, loreen moduan ernaltzen geala? Bai zea! Euskaldunak animaliak gea. Animalia basatiak! Ta edozer lortzeko gai gea. Gure askatasun sexuala! Independentzia! Mundua konkistatu ta euskaldunez beteko deu planeta osoa (*ordurako lurrean etzanda eta larrutan arituko balitz bezala*). Baaai!!!! Euskaldunak sexyak gea! Euskaldunak sexyak gea! Euskaldunak sexyak geaaaaa!!!!!!! (*eta hortxe dator bere orgasmoa*)

Musika kolpetik moztuko da. Peio lurrean etzanda. Burua altxatu eta publikoari begiratuko dio

Tira, uste baino lehenago bukatu zan gure lehen klasea. Baina Tommyren laguntzarekin Happy End clubeko frogara egin eta lanpostua lortu nun! Bai!!!!!! Hasiara batean astean 2, 3 gauetan egiten nun lana. Barran tragoak atera, eta noizean behin dantzako emanaldi txikik izaten nittun. Soldada nahiko exkaxa zan, egia esan, baina moldatzen nintzan. Ta gañea, bakizue zer izan dan hemen lan iteak ekarri didan hoberena? Mordoa gozaten detela. Eszenatokira ateatzen naizen aldiro, indartsu sentitzen naiz, boteretsu eta sexya ere bai. Ta hoi zertzan nik enekien aurretik. Bai: sexya naiz, jendea erakartzeko gaitasuna det. ta saiatuz geo gustuko dudan pertsona hori konkistatzeko gai ere banaiz! Tira, oain enaiz hasiko nere harremani buruz hizketan, ezta? (*publikoari galdera eginez*). Ez, hobe ez hastea, bestela gau osoa pasakozue nekin hemen ta ezta plana! Kasik hobe istorio hoiek bete egun baterako uztea. Baina gauza bakarra esangoizuet: The Schoolen edo Eskolan pasatako 3 urteak Unibertsitatara joatea bezela izan da netzako, Ta Happy Enden lana itea, berriz, doktoretza itearen modukoa.

Gauza asko ikasittut Londresera bizitzera etorri nintzanetik, bai hoixe!

Lagun batek baino gehiagok galdetu izan dit: Peio, zuk zer dituzu gustuko, neskak ala mutilak? Ta bakizue zer? Horrek garrantziarik eztula netzako. Izan ere, ze ezberdintasun dago gizon eta emakume izatearen artean? Gorputz fisikotik haratago, gauza gutxi, ne ustez. Begira, Londresera etorri nintzanetik nere alderik femeninoena asko garatu det. Eta enao itxura fisikoai buruz hizketan. Takoiek ere eztute zer ikusirik horrekin. Arlo emozionalai buruz ari naiz. Lehen baino sentiberagoa naiz. Barruko emozioak adieraztea errexagoa egiten zait gaur egun. Negar egitea ere bai, eta intuizio handiagoa dudala ere esango nuke. Baina badakizue zer dan xelebreena? Aldi beren nere alde maskulinoa asko indartu dala. Bai. Lehen baino indartsuagoa naizelako, bai fisikoki ta baita mentalki ere. Orain ez naiz beldurren menpe bizi. Gustuko ez dudan zerbait ikusten badet ingurun, ne eritzia ematen. Norbaitek min ematen badit, adierazi iteiot. Enaiz ixilik

gelditzen lehen bezela. Une zehatz baten norbaitek errespetatzen enaula sentitzen badet, mahaian kolpe bat emateko arazorik eztaukat. Ta horretarako ez det takoi gorrien beharrik.

Arlo maskulinoa ta femeninoa orekan izatea, hoixe da garrantzitsuena netzako. Ta hortik aurrera, gorputz baten itxurak baino, pertsonak pizten dit interesa. Bularrak, zakila, ipurdia, alua... hori baino askoz gehiago gea pertsonak, ta bada garaia garrantzia duten gauzei erreparatzeko. Bihotzari, adibidez. Ta bihotzak ez du gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunik iten.

12. ESZENA

Lehen kontau dizuedan modun, The Schoolen klase ezberdinak genitun. Gehienek dantzarekin zuten lotura zuzena, ta hor klasikoa ta dantza garaikidea lantzen genitun batez ere, baina baita kontakt inprobisazioa, butoh edota dantza afrikarra. Kantatzen ere ikasi genun, ta horrez gain sorkuntzako klaseak genitun. Bai, dantza egiteaz gain guk sortutako koreografiak itten hasi ginalako. Eta hoi gauza berria zan netzako. Urrats zehatz batzuk kopiatzen hala moduz moldatzen nintzan. Norberak bere sorkuntza itea, ordea, beste kontu bat zan. Erronka handia. Erronka handiegia!

2. ikasturtean izan zan. Sorkuntzako klasean 3 minutuko pieza bat in ber genun. Bakoitzak berea, ta gañea den-dena sortu behar genun guk, bai koreografia ta baita musika ere.

Gogoan det entsegu gelan bakarrik sartu nintzan lehen eguna:

Ta oain ze ingot? (*isiltasuna. Hasperen egingo du Peiok*)

Buatxabal. Hau ez da errexa izango.

Ea ba... ze ikasiet azken aldian?

Whitney Houstonen kantua abesten eta modu sexyan dantzatzen hasiko da

Hendaaaaaa iaataatik baionaraaaaaa noaaaaa (bere gorputza ukitzen duen bitartean, up & down. Nahasketa xelebrea)

Keba, Peio, hau desastre bat da. Honek ez du ez gatzik, ezta piperrik ere. Take it easy, my friend. Lasai. Ez pentsatu. Zeozer ateako da. Hustu zaitez, ta ordun zeozer sortzeko modun izango zea.

Ta mugitzen hastearekin batera, hortxe, esaera zahar batek bete-betean kolpatu nindun:

AKERRAK ADARRAK OKERRAK DITU (*offean*)

Ta zeatik esaldi hau? Akerrak adarrak okerrak ditu. Akerrak adarrak okerrak ditu (azkarrago errepikatuz). Akerrak adarrak okerrak ditu! (*azkarrago eta begiak zabal-zabal, ideia bikain bat eduki duela adieraziz*).

Ez galdetu zeatik, gaur egun oaindik ni neuk ez baitet ulertzen. Inspirazioa izango zan. Ta bai, esaldi horretan oinarrituta nere lehen sorkuntza egin nun. Nere lehen performancea.

"Akerrak adarrak okerrak ditu" koreografia. Dantza eta kantua. Bizarroa.

Zemuz? Ze iruitu zaizue? (*publikoari galdera*) Bai. Zuen aurpegia ikustea besteik eztao. Too much? Arraroegia? Bizarroa? Ala etzaizue gustatu ta kitto? Hala bada, bota lasai, enaiz hasarrauko! Ni neuk ere eneukan batere argi, egiya esan. Baina ze esangoizuet? Nere lehen sorkuntza izantzan. Ta bakizue zer dan hoi? Netzako sekulako garaipena! Sortzailea naiz! Artista! Oain bai!!! Barruan ditudan ideia hoiek errealitate bihurtzeko gai naiz!

Urteak neramatzan buruan ideia ezberdinak izanez: "Jo, honi buruz idaztea gustauko litzaidake. Edo beste ideia honekin ipuin bat idatz nezake. Ta buruan bueltaka dudan melodia honekin, kantu bat". Baina azkenen pentsamendu guzti hoiek hortxe gelditzen zian, erdi ahaztuta, ideien mundu miragarrian, ta errealitate bihurtu gabe. Ondorioz, ezin esan Artista nintzanik. Ezin nion baimen hori eman nere buruari. Hoi bai, Artistez inguratuta bizi izan naiz beti. Batez ere Londresera iritsi nintzanetik. Baina ni? Bai zea, zalea, besterik ez. Lehen performance hau sortzearekin batera, ordea, hoi guztia kolpetik aldau zan. Agian halamoduzko sorkuntza izango da honako hau. Beharbada erdipurdiko artista izango naiz. Baina ze nahizue? Nere lehen sorkuntza da. Ze ustezue, Atxagak lehen egunean idatzi zula Obabakoak? Artista ere ikasten doa, egunero lana eginez. eta orokorrean, lan handia egin ondoren iristen dia sorkuntzarik onenak. Hoi ikasiet Londresen, besteak beste. Ta oraindik asko det ikasteko, baina lanen jarraitzet, ta gero eta erosoago sentitzen naiz, bai hemen, eszenatokian, ta baita sortzen ai naizenen ere. Ta oain bai, lasai ta ozen esan dezaket: Artista naiz. AR - TIS - TA!

13. ESZENA

Asko ikasteaz gain, sorpresa harrigarriak bizi izan dittut Londresen. Happy Enden lanen hasi nintzaneko lehen eguna atzo izan balitz bezela daukat gogoan. Striptease bat prestatu nun, gizon

eta emakume rolekin jolastuz: zer da gizon izatea? Ta zer da emakume izatea? Takoiak eramateagatik femeninoagoa naiz benetan? Baina indartsuago sentitzen banaiz, ez al da hori maskulinoagoa? Tira, halako ideiak nitun burun performace hori prestatzen hasi nintzanen.

Ostiral gaua zan, ta oso urduri neon eszenatokira salto egin aurretik. Londresko nere lagun gehienak bertan zian.

MUSIKA: Prince: Kiss.

Ai ama! Honek ez du atzera bueltarik! Eszenatokira atea beharra daukat. Ta bida ze piura daramadan. "Peio, Hau al da zuretzat nahi dezun bizimodua? Seguru zaude?"

Galdera hori buruan kolpeka. Baina ordun, Baserritik atera nintzan egunean pentsatu, ordura arte Londresen bizi ta ikasitakoa gogoratu, ta argi ta garbi sentitu nun: "Bai, hau da nahi dudana". Ta arnasa sakon hartu ondoren eszenatokira salto egin nun.

PERFORMANCE STRIPTEASE. (Eroa. Basatia)

Performancea amaitzerakoan, bizi osuan jaso dudana txalo zaparradarik handina eskaini zidaten. Hortxe zeuden klasekide guztik oihuka, zutik txalotzen, ta hortxe ikusi nitun Super Tommy, Edward, Chus, Nekane ta ama (*azken hori esaten ari den bitartean aurpegia aldatuz*). Nekane? Ama? Ezta posible! Ai ene!! Ametsetan al nago? Aluzinazioa? Baina bai, hortxe zeuden, nere lagun guztiekin batera txaloka. Nekane negarrez, emozionatuta, ta ama irribarre handi batekin. Guxitan ikusi izan det horrela ama.

Eszenatokitik jaitsi, beraiengana hurbildu ta orduan ulertu nun dena. Hilabete batzuk lehenago, Nekane bisitan etorri zan Londresera egun batzuk pasatzera. Etxen gelditu zan lotan, jakina, ta Chus ta bera lagun intzian. Hortxe lotura. Ta Chusek berehala argitu zidan zalantza:

CHUS: Primo, esto era muy grande para no avisarle a tu familia, y ya vés, La Nekane no se ha venio sola.

PEIO:Ya, ya lo veo Chus! (*eta jarraian beste aldera begiratzuz*) Nekane, baina nolatan bururatu zaizu hona etortzea?

Ta Nekane etzidan ezer erantzun. Besarkada estu bat eman zidan, besteik ez.

PEIO: Ama, ta zuk ze ittezu Londresen? Ta ze iruitu zaizu ikuskizuna? Gustau zaizu? (serio jarriz)

Ta segundu batzuen isilunearen ondoren, hortxe bota zidan.

AMA: Holakoik ez det sekulan ikusi!

Bai, ama, horretan eztet zalantzaik! (*barrez*). Ama ta Nekane Londresen. Ezin nun sinistu. Ta bide batez, asteburu ederra pasa genun hiurok batera. Pentsa, gure Maria oso gutxitan atera izan da Euskal Herritik. Eztei bidaiari Palma de Mallorcara, beste behin Fatimara, ama birjinari bixita egitera, ta handik toalla ta maindira mordua erosita itzuli zan etxera. Gure Maria! Ba hantxe ibili zan Tamesis ibaian zehar pasiatzen ta Soho auzoko dendetako eskaparate guztiei beida, begiak zabal-zabalik ta ez ohiko dizdira zutela. "Oain ulertzet zeatik utzi zenun Baserria ta etorri zinan Londresera". Hoixe esan zidan amak etxera itzuli aurretik asteburu gogoangarri horretan. Agurtzerakuan, berriz, zerbait esan beharrean, kantatu egin zidan:

Hegoak ebaki banizkio, neria izango zen, etzuen alde egingo. Bainan horrela etzen gehiago txoria izango, eta nik txoria nuen maite.

Egun hartan Laboaren kantuak zentzu berria hartu zun netzako. Ta ordutik sarritan kantatzen det, batez ere Euskal Herria, baserria edo ama gogoan ditudanean.

14. ESZENA

Londresera etorri nintzanetik, bixitaren bat ala beste izan det. Nahi baino gutxiyo, egiya esan. Azken finen, Londres ta Euskal Herria eztaude hain urruti, ezta? Ta behin baino geyotan entzun izan det: "eozein egunetan etxeko atean joka izango nazu!" ta holakuak, baina azkenen inor ezta etortzen. Eskerrak Iñigo animau zala! Halako baten!

"Ezberdin ikusten zaitut. Aldauta". Hoixe izantzan esan zidan lehen gauza. Ta ordurarte ni neu enintzan jabetzen. Ia bi urte neramatzan Londresen bizitzen, ta ne bizimoduk aldaketa handia izantzula banekin, noski, baina horren eragina hain begibistakoa zenik, hortaz enintzan jabetzen. "Ezberdin? Ta nola ikusten nazu?" galdetu nion. "Argalago. Ta alaiago. Aurpegian antzematen zaizu, begiradan batez ere." - Sorpresa izantzan hoi entzutea, baina pentsatzen hasita enaiz batere harritzen.

Benetako Peio izatera pasa naiz hemen, ta aldaketa horrek gorputz fisikoan ere bere eragina izan du. Lehen sarritan gaixotzen nintzan. Eztarriko mina ta mukiak maiz izaten nitun, batez ere negun. Ta nekatuta bizi nintzan. Euria enun gustuko, ta Euskal Herrin, bakizue zer deun. Ba Londresen, are geyo: euria, lañoa ta iluntasuna. Batez ere negu parten. Hoi trixtura! Baina bakizue zer dan xelebreena? Hemen min ta gaixotasun guztik pasa intzaizkidala. Lo gutxiyo in arren, energia mordua det. Nere klasekide batzuk harrituta zeuden. - "What do you do to have so much energy? - galdetu zidan behin Edward gure pixukideak. "I don't know. I dance. I sing. And I'm Happy" erantzun nion. Ta orduan konturatu nintzan osasuntsu egoteak pozik bizitzearekin lotura zuzena dula. Nere kasuan behintzat hala da. Ta dantzatzeak ta kantatzeak asko laguntzen didate horretan.

Tira, baina Iñigoren bixitaz ai ginan hizketan, ezta? Ederki pasa genun elkarrekin. Bere lehen aldia zan Londresen eta libre nitun tarteetan hiriko nere lekuri kuttunenak erakutsi nizkion: Tower Bridge, Tate Museum, eta Primrose Hill parkea. Gabez ere atea ginan, jakina, Londresko gau giroa ezautzea ezinbestekoa dalako, ta The Cave edo Kobazuloko giroarekin flipau intzun: - "Iñauterietan al gaude?" - bota zun harridura ta interesa nahasten zitun aurpegiarekin. Ta ze esangoizuet, hasierako lotsak pasata ta pinta batzuk edan ondoren, inoiz baino sueltoago ikusi nun dantzan. "Mundiala, gau mundiala!" bota zidan Iñigok etxeratu ginenen. "Ta noiz ikusikot Euskal Herriko Billonzen emanaldia?" Egiya! Beyonce. Ahaztuta nun jada Iñigoren bitartez izan nula bere berri. "Ba biyar bertan nahibazu, Happy Enden emanaldia baitet".

Soineko luzea janzten hasiko da Peio

Ordurako pieza berria nun martxan. Lehen strepteasea baino koreografia sofistikatuagoa, eleganteagoa. Gañea nere sorkuntzan sakontzeko leku ezin aproposagoa izan da Happy End, bertako nagusiak konfidantza handia izan dulako nigan hasieratik. Ni neuk enun ulertzen zeatik. Ta behin galdetu in nion: - "Cause you're authentic" - erantzun zidan. Autentikoa? Ze esan nahizu? Ta barre intzun. Eskoziako herri txiki batekoa da Mike. Hoi bai, dagoeneko 30 bat urte daramatza Londresen bizitzen, baina halere country boy edo landaguneko mutila izaten jarraitzeula esateu. Nik ustet horregatik naizela bere gustukoa.

Tira, bere garai hartako performancea ikusi nahi al dezue? (*Publikoari galdera eginez*) Bai? Zerbait lasaiagoa da. Kantua ez da neria. Agian ezautuko dezue. Baina moldaketa bai, nik prestatuet. Ea zuen gustukoa dan.

ROBYN: DANCING ON MY OWN zuzenean kantatuta. A capella. Abestu + dantza

Gero eta erosoago nenbilen eszenatoki gainean garai hartan. Ta gero ta gehiago gozatzen nun.

PEIO: Iñigo, ze iruitu zaizu ikuskizuna?

Iñigoren aurpegia, esanguratsua: behera begira, bere estiloan. Serio. Pentsakor. Lotsatuta. Isilik.

PEIO: Iñigo! Muttu geatu zea!

Iñigok lehengo aurpegia dauka. Zerbait esan nahi du, baina ezin du.

PEIO: Holakoik etzenun espero, ezta? Eztu zerikusi handirik dantza taldean egiten genittun koreografiekin...

Iñigok bekainak igoko ditu. Ezetz dio buruarekin.

PEIO: Motel, esantzazu zeozer. Bota lasai, kritikak ere ongietorri dia zure kasun. Ze iruitu zaizu performancea?

Iñigok aurpegi xelebrea jarriko du. Ahoa zabaldu eta hitz bakarra botako du

IÑIGO: Polittaskua!

PEIO: Benetan? Gustatu zaizu?

IÑIGO: *(lotsatuta oraindik, ta lurrera begira)*. Ta ... eztezu sinistuko, baina zu dantzan ikusita pixkat emozionatu in naiz *(hankatartea ukituz)*

PEIO: Bai zea! Iñigo, nei adarrik ez jo, e?

IÑIGO: Serio ai naizela! *(lotsatuta eta gorrituta)*

PEIO: Benetan? *(harrituta)*

IÑIGO: *(buruarekin baietz dio)*. E, Peio, hanka polittak dituzu!

PEIO: *(barrez)*, Eskerrik asko, Iñigo, eskerrik asko!

IÑIGO: hola jarraitzen bazu, laster Billonze bezain ospetsu ingo zea.

Ta ordun argi ta garbi ikusi nun. Eztet Beyonce izateko beharrik, gogorik ezta asmorik ere. Beyonce bakarra dao munduan, ta aukeran nahiago det ni neu izan. Ni ere bakarra naizelako, ta eztet kopia bat izan nahi. Autentikua naiz. Nere gabeziekin, nere dohainekin. Baina autentikoa. Benetazkua. Ta gero ta hobeto sentitzen naiz nere azalean. Peio naiz. Euskal Herrian jaiotako baserritarra.

Dantzatzea, kantatzea ta antzeztea gustatzen zait, ta eszenatokira igotzen naizen aldiro zoriontsu naiz.

15. ESZENA

Ta zertan ibili izan naiz azken bi urte hauetan? The Schooleko ikasketak amaitu nitun. Kostata, baina den dena gainditu nun. Ta oaindik gogoan det azken eguna. Gure promozioko 10 ikasleak geunden. 3 urte eman genitun elkarrekin ia egunero, ta familia ginen. Bai. Nere odoleko familiako kide batzuk baino hobeto ezagutzen naute. Gauza mordoa partekatu deu elkarrekin, ta bizitzari eskerrak ematen dizkiot aukera eder hau emateagatik. Tira, ba azken egun hartan oso hunkituta geunden denok, bagenekielako handik aurrera gauzak zeharo aldatuko ziala. Baina horrelakoa da bizitza, ezta? Beti aurrera. Ezer ez da betirako. Ta hala dela onartzea hobe.

Gogoan dezue ikuskizunaren hasieran The Schoolen sartzeko kastinari buruz kontatutakoa? Epaimahaikidetako bat emakume betaurrekodun bat zen. Miss Stewart. Lehen eztizuet aipatu, baina eskolako zuzendaria da bera. Ta azken egun hartan gure promozioko kide bakoitzari hitz batzuk eskaini zizkigun. Neri ere bai, noski.

MISS STEWART: "Peio, we met 3 years ago in your audition. I saw an insecure man, but I could also feel your talent, and that's why we gave you the chance to study here. And look what you have become. You are a sparkling diamond right now and we are very proud of you".

Hortxe lehertu nintzan. Egunak neramatzan normalean baino sensibleago, ta Miss Stewarten hitz horiek entzutearekin batera nearrez hasi nintzan, zeharo emozionatuta. Nik ere orduan sentitu nuelako 3 urte lehenago hartutako erabakiak merezi izan zuela. Bere zailtasunekin, bere zalantzekin eta une gogorrekin, horietatik ere asko izan dialako, baina zorionez, momentu ederrak askoz ere gehiago izan dira. Halere, ordura arte inorrek etzidan hitzez adierazi nitaz harro zegoenik, ta horregatik Miss Stewarten hitz hoiek bihotzeraino iritsi zitzaizkidan.

Klaseak bukatzearekin batera, dantzako familiako kide batzuk Londres uztea erabaki zuten. Tartean Chusek eta Super Tommyk. Lehena Granadara itzuli zan, etxera, ta hantxe dabil gaur egun, bertako konpainia baten lanen ta dantza garaikideko klase batzuk eskeintzen. Super Tommy, berriz, New Yorkera juntzan lehenbizi,

handik Los Angelesera, ta etorkizunen Hollywoodeko pelikula baten ikusiz geo, enintzateke batere harrituko.

CHUS: Primo, ¿y tú qué vaacer ahora?

Galdetu zidan Chusek Granadara itzuli aurretik.

PEIO: Pues no lo sé. Creo que seguir aquí en Londres

CHUS: ¿Y no te has planteao volver a casa?

PEIO: Sí, lo he pensado. Pero todavía es demasiado pronto para eso, Chus. Me queda mucho por aprender y por vivir aquí.

Ta hortan ai naiz: ikasten ta bizitzen.

16. ESZENA

Happy Enden lanen jarraitzearekin batera, koreografia gehiago sortuitut. Ta hoietako batek arreta handia piztu du, euskal dantza duelako oinarri. Happy Endeko nagusiak, Mikek eman zidan abiapuntua. "Peio, can you show me some basque dances?" Euskal dantzak ez omen zitun sekulan ikusi, ta hortxe aitu nintzan arratsalde baten taberna zabaldu aurretik agurra, banakoa, Zuberoako Maskaradak ta fandango ta arin-arina dantzatzen. "You should include some basque folklore on your show". Hoixe proposatu zidan Mikek. Ta ideia bikaina iruditu zitzaidan. Are geyo, nolatan ez zitzaidan bururatu lehenago? Agian The Schoolen ikasitakoari erreparatu niolako batez ere nere koreografiak sortzerakuan. Baina une hartan, duela urte terdi inguru, ne sustraietara itzuli, ta euskal dantzaren esentzia nere sorkuntza baten txertatzen saiatu nintzan. Emaitza, hementxe dezue:

WAS taldearen GAU AMA diskoko IRRINTZI kantuaren gainean koreografia

Ta gau batean, performance hau dantzatu ostean, gizon bat kamerinora gerturatu zan. Bai, Happy Enden kamerinoa deulako artistek. Ta bertan gertatzen dian kontuekin soilik beste ikuskizun bat sortu nezake. Eszenatokian erakusten deguna baino dexente interesgarriagoa, portzierto. Baina tira, horiek beste kontu batzuk dia.

Jason. Jasoneri buruz hitz egiten hasi naiz, hoixe dalako gau hartan kamerinora gerturatu zan gizonaren izena. "I'm very

impressed with your performance. There's a lot of honesty in it". Ta eskerrak eman nizkion, benetakoa zala esan baitzidan. "Bai, naizen moduan azaltzen saiatzen naiz, eszenatokiaren gainen ta kanpuan. Geo ta geyo."

JASON: Peio, Do you sing?

PEIO: Abesten al dudan? Ba azken aldin ia egunero abesten det.

JASON: And do you compose your own songs?

PEIO: Tira, The Schoolen nengoela abestiren bat idatzi nun, baina hortik kanpo ezer gutxi. Hoi bai, inoiz entzun ez ditudan melodiak sarritan etortzen zaizkit burura.

JASON: If you want we could work together.

Hoixe bota zidan Jasonek. Elkarrekin lan egin? Hasiera batean nekin ligatu nahi zula pentsau nun, baina bai zea, serio ai zan hizketan. Bi egun geroago bere estudiora gonbidatu nindun. Ta aho bete hortz geau nintzan, holakoik enulako inoiz ikusi ordurarte. Ekoizle lanetan aitzen da Jason. Musika produktorea dala alegiya. Ta horrez gain eztaikit zenbat tresna jotzeitun: gitarra, pianoa, akordeoia, ta baterian ere earki moldatzen da. Artista osoa da Jason. Jator-jatorra gainea, ta gizon erakargarria, portzierto.

JASON: Can you sing one of your melodies?

PEIO: Melodia bat abesteko? Oain? Bapatean?

JASON: Yes! Do it, please!

Ta hortxe hasi nintzan kantatzen azken egunetan buruan iltzatuta nun melodia bat...

JASON: I like it! I think we could make a song out of it...

PEIO: Bai zea! Jason, nei ez adarrik jo, faborez. Nere kantua sortu? Grabatu?

JASON: I think it's possible. Do you have any lyrics?

PEIO: Abestiaren hitzak? Ez. Oraingoz melodia, besteik ez tet.

JASON: You should write something.

Dios! Beti erronka berritan murgiltzen. Ez da errexa artista izatea, ez hoixe. Baina aspertzeko denboaik ere ez tet. Ta interesgarria al da? Bai, bai, very interesting! Batez ere ikasteko gogua izanez geo. Talentua, eztaikit dudan ala ez, baina saiatu bai, saiatzen naiz, hortan eztaukat zalantzaik. Beraz, gau hartan etxera jun ta ... hortxe hasi nintzan kantatzen ta hitzekin jolasten, inprobisatzen, ta hoiek grabatzen mugikorrean.

Zerbait tarareatu. Abesti berri baten zati bat.

Ta konturatzerako abestiak egitura nagusia zun. Hitzak ta melodia zehatza. Egun batzuk geroago Jason ta biok estudioan elkartu ginen berriz ere, ta jolasten aitu ginan, bera bere makinekin, froga ezberdinak iten, ba ni, berriz, nere iritzia ematen: "Hor teklatuei indar geyo emango nieke. Ta ze iruitzen zati hortan koroak sartuko bagenitu?". Azkenean abestiari forma eman eta ... grabatu egin genun elkarrekin. Abesti bat. Ta oaindik horretan pentsatzen dudan aldiro ezin det sinistu.

JASON: We've got it!!! And now we need a name. Do you have a name as an artist?

PEIO: Izen artistikoa? (*begiak zabal-zabal*) Uau! Eztet hortan pentsatu oin arte. Happy Enden Peio moduan aurkeztu izan naute. Peio. Izen laburra da. Ingelesek ondo ahozkatzeko modukoa. Ta horrekin nahikoa. Baina izen artistikoa? Hoi oso garrantzitsua da! Very important! Ta ondo aukeratu beharra dao, behin erabakita, aldatzen hastea eztalako komeni.

Izena. Izen artistikoa. Artistaren nortasunarekin bat egin behar du. Hori ezinbestekoa da. Ta ze ezaugarri izan ber zitun ne izenak? Generorik ez izatea, adibidez. Hori netzako garrantzitsua zan. Ta hortako, euskal izen bat aukeratzea zan onena. Horrez gain, Naturarekin zerikusia izatea nahi nun. Hainbat izen bururatu zitzaizkidan, baina azkenen, ametsetan neonen izena negana etorri zan. Izen perfektua. Enun nik erabaki, berak aukeratu nindun. Izen bakarra, eta 3 hitz.

ELUR (*offean*)

bai. Elur: Ur, Lur eta Elur. 3rak Naturaren elementuak. Etengabe eraldatzen diren elementuak. Animalien modura. Gizakien modura. Ur, Lur eta Elur. Horixe naiz ni: UR ... LUR ... eta ELUR

***Peiok buelta bat emango du eta Elur bilakatuko da.
Hemendik aurrera euskara batuan hitz egingo du
Elurrek, tonu agudoagoan, bien arteko
ezberdintasuna areagotuz.***

Gabon! Gabon denei! Zer moduz zaudete?

Elur naiz. Bai, Peiorekin antza handia dut, baina bera baino ausartagoa naiz. Eta eroagoa ere bai. Lehen Peiok esan dizue ez duela gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunik egiten. Ba ni haratago noa. Gizon ez ezik, emakumea ere banaizelako. Eta

transexuala. Eta pansexuala. Hori guztia nahastuta, ta ezer ez aldi berean. Nola da posible? Ba oso sinplea da. Sexuen arteko bereizketak gainditu egiten ditut. Eta pertsona izateaz gain, animalia ere banaiz. Zebra. Anarrik kantatuko lukeen moduan, Zebra naiz, batzuetan beltz, arras zuriekin, ta besteetan zuri arras beltzekin. Eta eraldatzen noa etengabe, Naturaren moduan. Ur, Lur eta Elur.

Eta halaxe jarraitu nahi dut. Mugitzen. Aldatzen. Sentitzen. Eta gure eskubideak aldarrikatzen. Bada garaia generoan oinarritutako botere eta menpekotasun harremanak apurtzeko. Garen moduan bizitzeko. Eta gure buruaz harro egoteko unea iritsi da. Jarrai dezagun elkar zaintzen, ingurukoak errespetatzen, gure beldurrak gainditzeko eta maitatzen. Maitasuna delako bide bakarra. Maitasunak salbatuko gaituelako. Prest al zaudete? E? Prest al zaudete? Ba egin dezagun elkarrekin bidea!

ABESTIA. Asmoa: nik sortutako kantu bat grabatzea. Benetan. Horretarako ere laguntza beharko dut. Eta ideia, abesti horretan oinarrituta performace bat egitea.

(Peiorengana bueltatuz) Elur. Indarra du, ezta?

Peio eta Elur. Elur eta Peio. Biak gertu. Gero eta gehiago. Batzuetan eztakit nun hasten dan bata ta nun bukatzen dan bestea. Arriskutsua dirudi horrek, baina gustatzen zait. Osatu egiten gealako bata bestearekin. Eszenatokian batez ere.

17. ESZENA

Tira, baina gaurko showa amaitu aurretik nere azken Abenturen berri eman nahi dizuet, hilabete hauek bizi-biziak izan baitira. Jasoneri buruz hitz egin dizuet lehen. Ba... denbora asko pasa deu elkarrekin lanen ta lagun minak izatera pasa gea. Hain da jatorra! Ta gainea ederki zaintzen nau. Ta noski, azkenen maitemintzen hasi nintzan. Baina ... batez! Berarekin jai det maitasun kontutan. *(pena aurpegia jarriko du Peiok)*. Horri buruz ere hitz egin deu. Dios! Mordoa kostau zitzaidan hitzez adieraztea sentitzen nuna. Hemen eszenatoki gainen nere alderik basatiena pizten da, baina maitasun kontutan... ufa! Oaindik mordoa lotsatzen naiz. Euskalduna naiz, ez ahaztu. Hala ere, beldurrak gainditu ta Jasoni sentitzen nuna adierazteko gai izan nintzan. Berak argi utzi zidan lagun modun estimatzen naula soilik. Sentitzen nuna berarekin partekatu izanak, ordea, are geyo elkartu gaitu. Posible al da? Ba bai, hala izan da.

Ta hoi bai, Elur agertu zanetik mordua ligatzet. Benetan! Ni flipauta nao, eztakit zer gertatu dan. Feromonak izango dia, ala eszenatokiak sortzen dun diztira eta erakarpema? Kontuak kontu, inoiz ez bezela gerturaten zait jendea. Batzuk oso modu elegantean. Beste batzuk, berriz, zeharkako proposamenak egiten. Baten bat, ezin zuzenago. Denetarik!

Ta ze esangoizuet. Urte asko soltero eman dittut. Oain, berriz, singlea naiz. Ta praktikan gauza bera izan arren, ñabardurak oso ezberdinak dira. Lagun mordua daukat, ta ederki pasatzen eurekin. Ta baten batekin, harreman intimoa ere badet. Bai. Sexu kontutan ere kriston pila ai naiz ikasten ta gozaten. Ta pozik nago. Oso pozik.

Halere, gauza bat aitortu behar dizuet: gero eta gehiago botatzen faltan Euskal Herria. Natura, mendiak, hango berdea, itsasotik gertu egotea. Etxekoak ta hango lagunak ere bai. Ta Londresen nere unerik gozoena bizitzen ai naizen arren, Euskal Herrira bueltatzearen ideia indarra hartzen ai da. Geo ta geyo. Hoi bai, hara itzuliz gero nun biziko nintzateke? Baserrian eztet uste. Hiritik gertuago egon nahiko nuke. Donostian, agian? Ala Bilbon? Nork daki...

Leku baten zein besten, argi dudana zera da, sortzen jarraitu nahi dudala. Artista moduan garatzen. Ikasten. Ta batez ere gozaten. Buruan mila ideia ditut, baina hoitako batek ilusio berezia egiten dit: Euskal Kabareta sortu nahiko nuke. Bai. Euskal sortzaileekin elkarlanean egin, ta euskaraz, jakina. Estilo ezberdinetako dantzak, zuzeneko musika, espreski ikuskizun horretarako sortutako abestiak, ta sexya, oso sexya, euskaldunak ere sexyak gealako, ez ahaztu.

Tira, agian etorkizunean emango dizuet horren berri. Bitartean Londresen jarraitzen nere showarekin, ta hoixe da une honetan balio duen gauza bakarra.

Ikustezue: nere bizi-esperientzia ikuskizun bihurtu det. Gaurko emanaldia zuen gustukoa izango zala esperoet. Amaitu aurretik azken koreografia bat eskaini nahi dizuet. Ta sorkutza hau kuttunena da netzako. Zeatik? Nere ibilbide osoa laburbiltzen dulako, baserrian bizi nintzan garaietatik hasita gaur egunerarte. Abestia eztet nik sortu, baina netzako espreski egin daola pentsatu izan det sarritan, ta show honetan bere lekua izan beharra zun nahi ta nahiez. Eskerrik asko denei. Maite zaituztet.

KEROBIA: ESNATU NAIZ kantuarekin sortutako koreografia

AMAIERA

Informazio gehiago:

www.elur.eus

Elur Etxea, facebooken eta instagramen

Erreferentziak: (bideoak, elkarrizketak eta erreportajeetako loturak)

- Esnatu Naiz trailerra: <https://www.youtube.com/watch?v=ycMjyo8sHVc>

- Dantzagunea: <https://www.youtube.com/watch?v=-s502xXq9vE&t=3s>

- Berria: <https://www.berria.eus/paperekoa/1872/032/001/2020-09-30/baserritik-klubeko-agertokira.htm?fbclid=IwAR0VhqePmLanO-q5lRtDFMHSYd7D9SFoakW1FuhiLmwJVmViRoQhCHsw44M>

- Hirutxuloko Hitza: <https://irutxulo.hitza.eus/2020/08/12/zer-pentsatu-emango-dizun-une-atsegin-eta-dibertigarri-bat-pasa-nahi-baduzu-aukera-ona-da-esnatu-naiz-kabareta/>

Eskubiko taula:

Andoni Mutiloa (argazkia)

BIZITZA:

Jaiotza: Hernani, 1976ko abuztuaren 17a (44 urte)

Herraldea: Gipuzkoa, Euskal Herria

HEZKUNTZA:

Ikasketak: Kazetaritzan lizentziatua (Leioa, EHU). Atzerriko hizkuntzako magisteritzan diplomatua (Donostia, EHU).

Hizkuntzak: euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa

JARDUERAK:

Jarduerak: kazetaria, irakaslea, sortzailea, dantzaria, aktorea eta abeslaria

Lan nabarmenak: Esnatu Naiz kabareta

ESNATU NAIZ

Andoni Mutiloak sortutako kabareta da. Donostiako Poltsiko Antzerkiko deialdian finalista izan ostean, 2020ko urtarrilean estreinatu zen. Esnatu Naiz antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen ikuskizuna da. Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide, besteak beste, baina batez ere, gure nortasunarekin bat egin eta aske bizitzeko gonbitea egiten digu.

Ikuskizunaren abiapuntua:

“Beyoncé izan nahi duen baserritarra”. Ideia hori buruan zuela hasi zen Andoni egitasmo honi forma ematen 2018an. Hasiera batean antzerki obra baten gidoia zirudien, baina idazketa prozesuan aurrera egin ahala, dantzak eta musikak pisu handiagoa hartu zuten. Gidoiaren lehen bertsioa 2019ko urtarrilaren 1ean amaitu zuen. Ordurako argi zuen obra idazteaz gain, taularatzeko gogo handia zuela eta horretarako norbaiten laguntza beharko zuela. Eta Amancay Gaztañagak eskaini zion behar zuen babesa egitasmo hori errealitate bihurtzeko.

Estreinaldia:

Proiektua Donostiako Poltsiko Antzerkiko deialdian aukeratua izan ondoren, Esnatu Naiz 2020ko urtarrilaren 29an estreinatu zuten Poltsiko Antzerkiko Jaialdian. Guztira 4 emanaldi eskaini zituzten Donostiako 4 tabernatan (Botanika, El Nido, Scanner eta La Taberna).

Covid 19 birusaren ondorioz udaberrirako lotuta zituzten hitzorduak bertan behera utzi ostean, 2020ko udan emanaldiekin hasi ziren berriz ere. Orduz geroztik Aduna, Altzo, Zestoa eta Donostiako Tabakaleran eskaini dute Esnatu Naiz. Irailaren 30ean, berriz, kabaretaren bertsio luzea estreinatu zuten Hernanin.

Sinopsia:

Elurrek Londresko The Pink Flamingo klubean egiten du lan. Dantzatzeaz eta kantatzeaz gain, bere showa izatea lortu du eta gauero jende asko joaten da bera ikustera. Harrigarria izan da Elurren eraldaketa. Izan ere, duela 10 urtera arte baserrian bizi zen bere familiarekin. Nola demontre lortu du baserritan euskaldun honek underground mugimenduko modako artista izatea Londresen? Zer bizipen izan ditu Elurrek azken 10 urte hauetan? Eta zergatik da Beyoncé guzti honen erruduna?

Lantzen dituen gaiak:

Ikuskizun honek kontatzen digun istorioa xelebrea izan arren, galdera sakona proposatzen digu: gure nortasuna eta gure bizimodua bat al datoz? Beste modu batean galdetuta: gure nahiek, beharrek eta ametsak zer leku dute gure egunerokoan?

Bere azken 10 urteko bizipenen kontakizuna egitearekin batera, hainbat gai zehatzei buruzko hausnarketa egingo du Elurrek obra honetan: harreman sozialak, generoa, auto-estimua, lotsa eta beldurrak, sexualitatea, sormena,

bizipoza... gizartean errotuta dauden hainbat ohitura eta arau zalantzan jartzeaz gain, LGBTI+ komunitatearen eskubideen aldeko apustua egiten du kabaretak.

Fitxa artistikoa:

IZENBURUA: Esnatu Naiz

IDEIA, GIDOIA ETA ZUZENDARITZA: Andoni Mutiloa

AHOLKULARITZA ETA KANPO BEGIRADA: Amancay Gaztañaga

ARTISTA: Andoni Mutiloa

MUGIMENDU ZUZENDARITZA: Eneko Balerdi

EKOIZPENA: Elur Etxea

NORI ZUZENDUTA: Ikusle helduak

IRAUPENA: Bertsio laburra: 37 minutu / Bertsio luzea: 50 minutu

HIZKUNTZA: Euskara

ESTREINALDIA: Bertsio laburra: Donostiako Poltsiko Antzerki Jaialdia, 2020ko urtarrilaren 29an / Bertsio luzea: Hernaniko Kultur Etxea, irailaren 30ean

Informazio gehiago:

www.elur.eus

Elur Etxea, facebook eta instagramen.

Erreferentziak: (bideoak, elkarrizketak eta erreportajeetako loturak)

- Esnatu Naiz trailerra: <https://www.youtube.com/watch?v=ycMjyo8sHVC>

- Dantzagunea: <https://www.youtube.com/watch?v=-s502xXq9vE&t=3s>

- Berria: <https://www.berria.eus/paperekoa/1872/032/001/2020-09-30/baserritik-klubeko-agertokira.htm?fbclid=IwAR0VhqePmLanO-q5IRtDFMHSYd7D9SFoakW1FuhiLmwJVmViRoQhCHsw44M>

- Hirutxuloko Hitza: <https://irutxulo.hitza.eus/2020/08/12/zer-pentsatu-emango-dizun-une-atsegin-eta-dibertigarri-bat-pasa-nahi-baduzu-aukera-ona-da-esnatu-naiz-kabareta/>